

## KOMUNIKAZIO PLANARI BURUZKO TXOSTENA

2018ko martxoan jakinarazi genuen gure webgunean urtarrilean Komunikazio Plan bat jarri zela martxan, eta helburua zela Elkartearen Misioa eta Ekintzak jakinaraztea gizarteari oro har, eta bereziki gure bazkideei eta ingurune kooperatiboari, zehazki MONDRAGONeko egiturei, eta horretarako komunikazio talde bat sortu zela, Planari bultzada emateko konpromisoarekin.

Illo horretan, nabarmendu nahi dugu 2018an aurrerapen handia egin dela, izan ere, gure webgunean 30 albiste argitaratu dira, horietatik 12 Arizmendiarrrietaren gogoetei buruz, eta 37 jakinarazpen helarazi zaizkie gure bazkideei, Internet bidez. 35 aldiz agertu gara komunikabide konbentzionaletan, horietatik 23tan EAE-Nafarroako enpresa eredu inklusibo eta parte hartzailearen inguruan. Gure Elkartea irabazi asmorik gabeko 7 erakunderi aurkeztu diegu, baita 14 kooperatibari ere, eta lankidetzaz esparru bat ezarri dugu MONDRAGONen eta ALERen artean, prestakuntza, zabalkunde eta ikerketa kooperatiboa lantzeko. Elkarrekin, halaber, bi jardunaldi garrantzitsutan parte hartu du: batean, gure Batzar Nagusia zela eta, Arizmendi Ikastolako zuzendari nagusiaren partaidetzarekin, “Heziketa, balioak eta gazteak” izenburuko gaia landuz, eta, bestean, ARIZMENDIARRIETA EGUNAREN ospakizuna zela eta, “Gobernantza jasangarria: zuzendu eta antolatu etorkizunari aurrea hartuz” izenburuarekin Daniel Innerarityk eman zuen hitzaldiarekin; halaber, gizarte zibileko bi eragilek –Elkarbizi eta MPpu– antolatutako eztabaida mahai batean parte hartu genuen, “Beste ekonomia bat posible da” landuz, Arizmendiarrrietaren balioez eta gogoetez hitz eginez, kooperatibista gazte baten esperientzia kontatuz eta enpresaren euskal eredu inklusibo eta parte hartzaileaz jardunez.

Gainera, Komunikazio Plana indartu dugu, 2019an itxura freskoagoa eskaintzeko, ahalegin handia eginez sare sozialen erabileran, bereziki gazte jendearengana iristeko, komunikazio tradizionaletan presentzia esanguratsua edukitzeko, ingurune kooperatibora gehiago hurbiltzeko, eta eztabaida eta hausnarketa sustatzeko, mugimendu kooperatiboaren balioak ezagutarazi eta euskal gizarte osoaren mesedetan aplikatze aldera.